

**BUSTURIALDEKO ENPRESETAN KONTRATAZIOETARAKO LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA, LANBIDE – EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZEN DEIALDI BARRUKOA**

<b>Helburua</b>	Kontratu finkoetarako laguntzak: lanaldi osoan edo partzialean aritzeko eta Gizarte Segurantzako araubide orokorrean.
<b>Dirulaguntza jaso dezaketen kontratuak:</b>	Laguntza horiek jaso ditzaketen kontratuak dira <b>2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko ekainaren 30era</b> egindakoak. Kontratuak mugagabeak izango dira, eta lanaldi osokoak edo partzialekoak izan ahalko dira, gutxienezlanaldiaren %50ean.
<b>Dirulaguntzaren zenbatekoa:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ <b>Gehienez ere 8.000 euroko laguntza</b> emango da lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko. Laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen %75,enpresa kontratatzailearen kontura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.</li> <li>➤ <b>Gehienez ere 10.000 euroko laguntza</b> emango da lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko,honako kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen direnean: DSBEren onuradun, titular edo jasotzaileak; 35 urtetik beherakoak; iraupen luzeko langabeak; edo 55 urtetik gorako pertsonak. Kasu honetan, laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 100, enpresa kontratatzailearen kontura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.</li> <li>➤ Bestalde, %50 baino gehiagoko lanaldiko kontratu mugagabeen kasuan, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko zenbatekoa) lan egindako denborarekin proportzionala izango da.</li> <li>➤ Zenbateko guztiak <b>%10 gehituko dira</b> emakumeak kontratatzen direnean. Dirulaguntzaren azken zenbatekoak, igoera horiek aplikatzean, ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata- kostuen %100, enpresa kontratatzailearen kontura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne</li> </ul>
<b>Enpresa edoerakunde onuradunak</b>	Onuradunak izan daitezke legez eraturako pertsona fisiko edo izaera pribatukoak, Busturialdean <b>lantokia eta jarduera ekonomikoa</b> dutenak.
<b>Betekizunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontratu beharreko pertsonak Busturialdean egon beharko dira erroldatuta, lan-harremana hasitako egunean.</li> <li>• Kontratu beharreko pertsonak langabeak izan behar dira eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa alta emanda egon beharko dira, gutxienez kontratua hasi aurreko egunean.</li> <li>• Kanpoan geratzen dira honako pertsona hauen lan-kontratazioak: aurreko deialdietan pertsona horiek kontratatzeagatik enpresa</li> </ul>

	<p>berberean jadanik laguntza jaso dutenak.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Kontratazioa edo kontratazioak izan beharko dira diruz lagunduko diren kontratudun pertsonak lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresan dagoen plantillaren batz besteko osoaren gainean lanpostu garbiak sortzea</li> </ul>
<b>Eskariak aurkezteko epea</b>	2022ko abenduaren 28tik 2023ko otsailaren 28ra
<b>Eskariak aurkeztea</b>	<input type="checkbox"/> Telematikoa: <a href="http://www.bermeo.eus">www.bermeo.eus</a>  Udal egoitza elektronikoa: <a href="https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/">https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/</a> Nire tramiteak / Sarrera erregistroak)
<b>Deialdia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:</b>	<input type="checkbox"/> BAO, 2022ko abenduaren 27koa <input type="checkbox"/> <a href="http://www.bermeo.eus/ekimenak">www.bermeo.eus/ekimenak</a>
<b>Helburu bereko laguntzekin bateragarritasuna</b>	Deialdi honetan araututako laguntzak ez dira bateragarriak izango honako hauekin: kontzeptu eta helburu beragatik administrazio edo erakunde publiko eta pribatuek emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntza lortzearekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu (betiere kostua gainditzen ez bada).
<b>Dirulaguntza emateko modua</b>	Laguntza hauek emateko prozedura norgehiagokakoa da eta Bermeoko Udaleko aurrekontuetan xede horretarako kontsignatutako aurrekontu-kredituaren mugaraino (229.425,00 euro).
<b>Ordaintzeko modua</b>	Ordainketa bakarra: 2023ko uztailean egin beharreko justifikazioa egindakoan eta egiaztatzen denean diruz lagundutako kontratazioko baldintzak betetzen direla.

Hizpide ditugun laguntzak Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpena oinarri hartuta, 2022ko ekitaldian Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntzen Deialdiari buruzkoa (2022-05-20ko EHAA).